



[Español](#) | [Euskara](#)

1. [Hasiera](#)
2. [Ekitaldiak \(Lehiaketak eta Deialdiak\)](#)
3. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala Astigarragan

Sagar Uzta Argazki Rally Digitala Astigarragan



2010ko Irailaren 26an, Igandea, sagarrari eskaintzen zaion X. Sagar Uzta jaiaren barruan, III. Argazki Rally Digitala ospatuko da Astigarragan, aurtten bertako bildumarik onena sarituko delarik.

Herria: Astigarraga

Lekua: Astigarraga

Organizadork: Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa

FechaInicio : 2010/09/26

FechaFin : 2010/09/26

Oinarriak:

- Argazkizale guztiek parte hartu ahal izango dute Rally honetan.
- Izen ematea Foru enparantzan (udaletxearen alboan) egingo da Igandean, Irailaren 26an, goizeko 09:30etatik 11:00etara bitartean.
- Izen ematea 3 eurokoa izango da.
- Ibilbidea: Astigarragan.
- Gaia: 2010ko Sagar Uzta jaia.
- Parte-hartzaile bakoitzak CD batean 6 argazki aurkeztu beharko ditu, JPG formatuan, 20x30eko tamainan eta gutxienez 2.000x3.000 pixel-etako erresoluzioan.
- Argazki bildumaren CDa Irailaren 27tik-Urriaren 1a bitartean Sagardoetxean entregatu beharko da. Orduetgia: 11:00-13:30 eta 16:00-19:30.
- Bertaratu ezin dutenek, argazki bilduma postaz bidali dezakete, helbide honetara: Sagardoetxea Museoa - Kale Nagusia, 48. - 20115 Astigarraga (Gipuzkoa). Kasu honetan, Irailaren 27tik-Urriaren 1a bitarteko Korreos-eko zigilua duten bildumak soilik onartuko dira.
- Sariak:
 - Bildumarik onena: 190 euro
 - Bigarren sailkatua: 160 euro
 - Astigarragako bildumarik onena: 130 euro
- Epaimahaia bi argazkilari profesionalak eta diseinatzaile grafiko batek osatuko dute.
- Urriaren 15an arratsaldeko 19:00tan Sagardoetxean egingo da sari banaketa eta erakusketari hasiera emango zaio.
- Oinarri hauetan aurreikusten ez diren arazo guztiak Rally hau antolatzen duen erakundeak ebartziko ditu.

Oharrak:

Lehiaketara aurkeztutako argazkiak antolatzaileen eskuetan geratuko dira.
Erakusketara Sagardoetxea Museoa izango da Urriaren 15tik 29ra bitartean museoaren ordutegian.
Saritutako argazkiak eta parte hartzaile bakoitzaren argazki bat erakutsiko dira.
Rally honetan parte hartzeak, oinarriak onartzen direla esan nahi du.
Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da.
Rallyan izena ematen dutenek, Sagar Uzta egunean pintxo bat eta sagardo trago bat doan dastatzeko aukera izango dute.


Lotura interesgarriak:

[Sagar Uzta Oinarriak](#)

[Sagar Uzta - Sagarren Festa 2010](#)



2010 Kultura eta Euskara Departamentua- Gipuzkoako Foru Aldundia.



gipuzkoa.net

[Kredituak](#)